

## ARTXIBATEGIEN NAZIOARTEKO KONTSEILUA

### ARTXIBOZAINAREN LANBIDE ETIKAREN KODEA

#### HITZAURREA

01. Artxibozaintzako etika-kode batek, artxibozainen lanbiderako goi-mailako jokabide-arauak ezarri behar ditu. Kode horrek balio behar du, orobat, lanbideko kide berriei arau horiek ezagutarazteko, artxibozain trebatuei beren eginbeharrak gogorarazteko eta lanbide honenganako konfiantza jendearengandik irabazteko.
02. "Artxibozain" hitzak, kode honetan erabiltzen den eran, dokumentuen kontrol, zainketa, kontserbazio eta administrazioarekin zerikusi duen guzti-guztiak hartzen ditu bere baitan.
03. Instituzio enplegu-emaileak eta artxibo zurbitsuak kode hau ezartzea erraztuko duten politikak eta praktikak hartzera bultzatuko dira.
04. Kode honek, arazo konkretuentzat soluzio bereziak ekartzea baino nahiago du lanbideko kideei gidatzat balioko dien marko etiko bat ematea.
05. Printzipio guztiek daukate ondoan iruzkin bat; Etika Kode hau, printzipio eta iruzkin multzo horrek osatzen du.
06. Kode hau, praktikara eramateko orduan, artxibozaintza-erakundeen eta lanbide-elkarteen jarrera onaren mende dago. Jarrera hori gauza daiteke hala prestakuntza-ahaleginean nola hurrengo hauetarako mekanismo egokiak ezartzean: alegia, zalantza kasuetan orientazioa eman, etika gutxiko jokabideak aztertu eta, egokitzat joko balitz, zehapenak ere ezarri.

#### ETIKA KODEA

1. Artxibozainek dokumentuen osotasuna zainduko dute, bermatuz horrela lehenaren lekuko fidagarri izaten irauten dutela.
  - (1) Artxibozainen eginbehar behinena, bere ardura eta zainzapean dauden dokumentuen osotasuna mantentzea da. Eginbehar hau betetzean, kontuan hartu behar dituzte nagusi, jabe, dokumentuetan aipatzen diren lagun eta erabiltzaileen, lehenago, oraingo eta etorkizuneko eskubideak eta bidezko interesak, nahiz eta inoiz gatazkan egon. Artxibozainen profesionaltasunaren neurria, objektibotasuna eta inpartzialtasuna dira. Aurre egin beharko diete gertaerak ezkutatu edo distorsionatzeko asmoz testigantzak manipulatzeari begira egindako mota guztietako presioei.

2. Artxibozainek dokumentuak euren histori, lege eta administrazio-testuinguruan baloratu, hautatu eta mantenduko dituzte, jatorri-printzipioa beti errespetatuta eta beraien arteko sorburuko harremanak jagon eta agerian jarrita.
  - (2) Artxibozainek onarpen orokorreko printzipio eta praktiken arabera jokatu dute. Euren betebeharrak eta eginkizunak artxibo-printzipioen arabera burutuko dituzte zer hauei guztiei dagokienean, alegia: dokumentu aktibo eta erdiaktiboen, dokumentu elektronikoak eta multimedialak barne direla, produkzio, kontserbazio eta azken xedearen zehaztapena, artxibategian gordetzeko dokumentuen hautapena eta eskuraketa, bere ardurapean dauden dokumentuen hegalpea, zainketa eta iraunarazpena eta dokumentu horien antolaketa, deskribapena, argitarapena eta erabiltzeko moduan jartzea. Dokumentazioa alderdikierarik gabe baloratuko dute, administrazio-eskakizunen eta euren erakundearen eskurapen-politiken ezagutza osoan iritzia oinarrituta. Iraunarazpen iraunkorreko dokumentuak artxibozaintza-printzipioen arabera (hau da: jatorri-printzipioa eta sorburuko antolaketaren printzipioa) eta onarturiko arauen arabera antolatu eta deskribatuko dituzte baliabideek ahalbideratzen dizkieten bezain azkar. Dokumentuak erakundearen helburu eta baliabideen arabera eskuratuko dituzte. Ez dira saiaturiko sarrera berriak erdiesten eta ez dituzte onartuko ere, horrek dokumentuen osotasuna eta segurtasuna arriskuan ipin ditzakenean; alderantziz, artxibategirik egokienean gorde egin daitezkeen lortzeko laguntza emango dute. Gerragarria edo okupazio-aldian konfiskaturiko dokumentu publikoak sorterrira itzul daitezkeen lagunduko dute.
3. Artxibozainek bermatuko dute dokumentuen trataera, kontserbazio eta erabilera-prozesuetan benetakotasuna mantentzen dela.
  - (3) Artxibozainek bermatu behar dute dokumentuen (dokumentu elektronikoak eta multimedialak barne) artxibozaintza-balioari ez diotela kalterik egingo artxibozaintzari buruzko balorazio, antolaketa eta deskripzio, kontserbazio eta erabilera-eragiketek. Arreta handiz ezarritako metodo eta irizpideen arabera egingo dira laginketa guztiak. Orijinalen orde besterik formatu batzuk, dokumentuen lege, funts eta informazio-balioa kontuan izanik egingo dira. Kotsularako eskuraezinak diren dokumentuak espedientetik aldi baterako ateratzen diren guztian, horren berri erabiltzaileari eman behar zaio.
4. Artxibozainek etengabe ziurtatuko dute dokumentuen ailegarratasuna eta ulergarritasuna.
  - (4) Gorde edo kendu beharko diren dokumentuak aukeratzeko artxibozainek, sortu edo metatu zuen lagun edo erakundearen jardueraren funtsezko testigantza mantentzea edukiko dute lehentasunezko irizpidetat eta era berean kontuan ukanen dituzte ikerketaren interes aldatzaileak ere. Artxibozainek kontziente izango dira badaezpadako jatorria duten dokumentuen eskuraketak, erabat interesgarriak izanda ere, legez kontrako merkataritza erraz dezakeela. Lankide izango dira, bada, beren kideekin eta lege hau betetzeko ardura duten organoekin dokumentu-lapurretaren susmagarri direnak jazarri eta harrapatzen.

5. Artxibozainek dokumentuekin zerikusian burutzen dituzten ekintzak legezkotzeko, dokumentuen bidez jasota utziko dituzte.
  - (5) Artxibozainek dokumentuei bizi-zikloan zehar trataera egokia ematearen alde egin eta informazioaren euskarri berriek eta kudeaketa-praktika berriek planteatzen dituzten arazoen soluzioan ekoizleekin lankide izan beharko dute. Artxibozainak, jadanik dagoen dokumentazioa biltzeko ardura hartzeaz gain, lankide izan beharko dira informazio eta artxibozaintza-sistema elektronikoen baliodun dokumentuak jagoteko prozedura egokiak hasieratik har ditzaten. Artxibozainek, dokumentuen jabeekin edo horiek transferitzeko dauden zerbitzuekin daukaten tratuan, bidezko soluzioak aurkitzen saiatu behar dira ahal den guztian eta hurrengo elementu hauek kontuan arreta handiz izan ondoren: transferitu, dohainik eman edo saltzeko aginpidea edo eskumena, ekonomia-motako hitzarmenak eta mozkinak, dokumentuak tratatzeko planak, autore-eskubideak eta eskuratzeko baldintzak. Artxibozainek egiten diren sarrera, kontserbazioa eta artxibozaintza-lan guztiak dokumentatuko dituen etengabeko erregistro bat mantendu behar dute.
6. Artxibozainek ahal denik eta sarbide handiena sustatuko dute eta alderdikieririk gabeko zerbitzua emango diete erabiltzaile guztiei.
  - (6) Artxibozainek beren ardurapean dauden dokumentu guztiak deskribatzeko tresnak, orokorrak eta berariazkoak bidezkoen gertatzen den arabera, landu behar dituzte. Jende guztiari eman behar diete aholkua alderdikieririk barik eta dauzkan baliabideak erabili behar dituzte zerbitzu-aukera orekatua emateko. Artxibozainak, dokumentuetara sartzeko edo horiek erabiltzeko arrazoirik gabe jartzen diren murrizketa guztien kontra agertu behar dira; baina, hala ere, sartzeko baldintza gisa iradoki zein onar ditzakete argiro mugaturiko eta iraupen zehatzeko murrizketak. Eskuraketa-unean sinaturiko hitzarmen guztiak zintzoki bete eta alderdikieririk barik aplikatu behar dituzte; baina inguruabarrak aldatzen direnean, aldiz, dokumentuetarako sarbidea erraztu ahal izateko, baldintzak birnegoziatu behar dituzte. Artxibozainek adeitsu eta zerbitzu-izpirituaz erantzun behar diete euren fondoekin zerikusian egiten zaizkien bidezko kontsulta guztiei eta fondoan erabilera ahal denik eta gehien sustatu, kontuan izanik erakundeen politika, fondoan zainketa, legeko gogorapenak, banakako eskubideak eta emaileekiko hitzarmenak. Erabiltzaileei jarritako murrizketak arrazoitu behar dituzte eta zuzentasunez erabili.
7. Artxibozainek sarbidea zein pribatutasuna, biak, errespetatuko dituzte, indarreko legeriak ezarritako muga barruan.
  - (7) Artxibozainek pertsona fisikoen eta juridikoen pribatutasuna eta, orobat, segurtasun nazionala ere, babesteko ardura hartu behar dute, eta hau guztia informazioa desegin gabe, batez ere dokumentu elektronikoen kasuan, hemen datuak ezabatu edo eguneratzeko ohitura, zabala delako. Sortu zituzten gizabanakoen edo dokumentuetan aipatzen diren lagunen barrukotasunerako eskubidea errespetatu behar dute, batez ere euren izenak erabiltzeari edo dokumentuen azken helburuari buruz galdetu ez zaienena.

8. Artxibozainek denen interesean erabiliko dute beraiengan jarri duten konfiantza eta egoera hori ez dute erabiliko modu bidegabean ez euren eta beste batzuen onerako.
- (8) Artxibozainek ez dute sekula egin behar beren lanbide-osotasun, objektibotasun eta inpartzialtasunari kalte egin dakioken jarduera bakar bat ere. Ezingo dute ekonomiazko ez beste eraren bateko onurarik beraientzat lortu erakundeen, erabiltzaileen edo beren kideen kaltetan. Artxibozainek ez dute bildu behar dokumentu orijinalik beren eskumen-barrutian ez dokumentuen salerosketetan parterik hartu. Ez dute egin behar jendearen aurrean interes-gatazkaren itxura eman dezakeen jarduerarik. Artxibozainek erakundearen fondoak erabil ditzakete beren ikerketetarako edo argitaratzeko xedez, baldin lan horiek gainerako erabiltzaileei ezarritako baldintza berdinetan egiten badituzte. Ez dute erakutsi edo erabili behar sarbide mugatuko fondoekin egindako bere lanetik abiatuta eskuraturiko informaziorik. Beren ikerketa-esparruetan egindako beste lan batzuk, norberaren ardurapean dauden dokumentuetan oinarrituriko lanak barne, kritika ditzakete edo berei buruzko iruzkinak egin. Ez dute onetsi behar lanbidearekin zerikusirik ez duen jendeak euren praktika eta betebeharretan sudurrik sar dezan. Ez dute baitetsi behar euren ikerketa edo argitarapenak, gomendaturik dituzten lanbide edo administrazio-eginkizunekin tarteka daitezten. Erakundeetako fondoak erabiltzeari dagokionez, artxibozainek ez dute erabiliko ikertzaile batek egin eta oraindik argitaratu gabe dituen aurkikundearen ezagupena alde aurretik berari jakinarazi gabe erabiltzeko asmoa duela.
9. Artxibozainek, artxibozaintzari buruzko ezagutzak etengabe eguneratu eta bakoitzaren ikerketa eta esperientzia elkarbanatuta, lanbide-bikaintasuna erdiesten saiatuko dira.
- (9) Artxibozainak euren lanbide-ezagutza eta esperientzia garatzen saiatuko dira artxibozaintzari buruzko jakintzagaia aberastu eta lagun haiek, zeintzuen prestakuntza edo jardueraren ardura daukaten, zereginak egokiro eta gaitasunez burutzeko moduan prestatu daudela egiaztatzeko.
10. Artxibozainak lankide izango dira euren lanbide-kideekin eta beste lanbide batzuetakoekin Gizateriaren dokumentu-ondarearen kontserbazioa eta erabilera sustatzeko.
- (10) Artxibozainak saiatu behar dira lankidetzaren sustatzen eta euren kideekin gatazkak izateari itzurtzen; eta zailtasunak gainditu behar dituzte artxibozaintzari buruzko arauak eta lanbide-etikari atxikimendu orokortua izatea lortuta. Artxibozainak, lan honekin zerikusi duten lanbideetako kideekin lankide izango dira elkarren arteko errespetu eta ulerkuntzan oinarrituta.